

## BALIOZKO PROPOSAMENA

- **Zuen bezeroei ze arazo konpontzen diezun azaltzea argi eta xehetasunez, proiektuaren izaera berritzailea zertan datzan azalduz.**

Gazteek azkenaldian ez dakite non atera gauean edo zein taberna diren aproposenak asteburu bakoitzeko. Horretarako, aplikazio bat egin nahi dugu eta, bertan, denbora errealeko mapa bat ezarri. Horrela, aplikazioaren erabiltzaile bakoitzak profil bat sortu behar du bere adin eta bizi den herriarekin, eta mapan agertzen diren zein tabernetan aterako diren gauean azaldu dezakete. Gainera, taberna bakoitzeko xehetasunak azaldu daitezke: musika, batez-besteko adin tartea, prezioa, jende-kopurua, etab. Horrela, erabiltzaileek ikusi dezakete ea zenbat pertsona joango diren taberna bakoitzera, zein giro egongo den, etab. Gainera, nahi izanez gero, denbora errealeko kokalekua azaldu dezake. Guztiz anonimoa izango litzateke, baina kolore bitartez leku bakoitzean zenbat pertsona dauden eta zein adin-tartekoak diren ikus dezakete bestek.

- **Zuen bezeroarentzako edo bezero-segmentuarentzako balio-proposamena definitzerakoan nabarmentzekoak diren faktoreak argi eta garbi deskribatzea (hala nola, prezioa, kalitatea, diseinua, segurtasuna, etab.).**

Gure bezero-segmentua 16 eta 25 urte tartean dituzten gazteak izango dira. Aplikazioa dohainikoa izango da. Segurtasun aldetik, oso segurua da; izan ere, erabiltzaileak anonimoak izango dira eta partekatuko den informazio bakarra adin-tartea eta kokalekua izango da (nahi izanez gero, betiere). Beraz, ezin dezakegu jakin pertsona bakoitza non dageon, ez baitakigu zein den zein. Oso erabilgarria eta erraza da: guztiz intuitiboa izango da eta oso bisuala, batez ere koloreen erabilerragatik. Gainera, oso erabilgarria izan daiteke hiri handietan. Bertan, taberna eta diskoteka-kopuruarengatik, oso erraza da guztiz galduta egotea gauean iretetean. Herri txikietan, aldiz, tabernak oso ezagunak dira eta ez da normalean informaziorik behar tabernak ezagutzeko edota nora joan aukeratzeko. Horregatik, hiri handietan bizi diren bezeroei (Iruña, Donostia, Bilbo, etab.) gomendatzen diegu gure aplikazioa erabiltzen saiatzea, oso onuragarria gerta baitakie.

Aplikazioa bereganatzean, lehenik eta behin erabilera-gida agertuko zaio bezeroari :  
“Ongi etorri! Erabiltzen hasteko, lehenik eta behin zure profila sortu behar duzu. Adierazi ezazu zein den zure izena, adina eta bizi zaren herria (lasai, informazio guztia hau anonimoa da). Hemendik aurrera, farrara irtengo zaren aldiro Euskal Herriko mapa interaktiboa ikusi eta erabili dezakezu. Nahi baduzu, non irtengo zaren azaldu dezakezu gaua iritsi baino lehen, edota zure kokalekua denbora errealean partekatu (zure borondatez, noski). Argi baduzu nora joango zaren, adierazi ezazu! Horrela, bestek ikus dezakete non egongo den farra onena eta zein adin-tarteko jendea dagoen taberna bakoitzean, zure gustuko giroa aurkitzeko. Tabernetan ere iradokizunak eta xehetasunak azaldu ditzazkezu (zein musika dagoen, zein adin-tarte, ea beteta dagoen, etab.) eta tabernaren argazki edo bideo bat ere igotzeko aukera duzu. Gainera, beste erabiltzaileen izenak bilatuz, zure lagun-zerrendara batu ditzakezu (haiek zure eskaera baieztatuz gero). Horrela, non irtengo diren edo non dauden ikusi dezakezu eta haien izena zure mapan agertuko da. Disfruta itzazu zure festa-gauak!”

Hemendik aurrera, gidan esan bezala, erabiltzaileak gure aplikazioak eskaintzen dituen zerbitzu guztiez gozatu dezake.



*FarraLeku aplikazioaren aurreikuspena:*



# Hasi Saioa

Izena  
Gorka

Pasahitza  
\*\*\*\*\*

Telefono zenbakia  
61844279


Sare Sozialak



Kaixo  
**Gorka B.**



### Festa Berriak

 Donostia - GU San Sebastián  
Sarrera 20€ ×  
Gutxieneko adina - 18 urte  
Urtarrak 21

 Tolosa - Laintza  
Sarrera 0€ ×  
Gutxieneko adina - 14 urte  
Ostaila 20

 Ibarra FESTA  
Gutxieneko adina - 13 urte ×  
Martxoak 1


Egiaztapen osoa 60%



 **Informazio Pertsonala** >  
Izena eta profila argazkia osatu  
datuak osatzeko

 **Balaztatu helbide elektronikoa** >  
Balaztatu helbide elektronikoa hau  
datuen segurtasuna eta osotasuna







Gorka B.

gorkabaar@ikaslagun.org

Kontu Pertsonala Informazioa

Erabiltzailea @gorka.bartola

Kontu Zenbakia 903402383011



Orokorra



Online Ordainketa

Desblokeatu PIN edo CVV eta gehiago



Sare sozialak konektatu

Instagram, Facebook, ...



Kontaktuetatik Konektatu

Aurkitu lagunak telefono zenbakiaz



Laguntza



**Profila aldatu**

[Aldaketak egin](#)

Izena **Gorka Bartolome**  
Erabiltzailea **@gorka.bartolome**  
Telefono Zenbakia **6776677667**

**Informazio Pertsonala**

Email **gorkabaar@ikaslagun.org**  
Telefono Zenbakia **6776677667**  
Kontu Zenbakia **903402383011**

**Gailuaren Informazioa**

Gailua **Redmi M2004**  
Apilazioaren Bertsioa **3.0.2(7722)**



## Konfigurazioak

### Segurtasuna



Aldatu PIN



Aldatu kontraseña



### Hizkuntza



Aldatu Hizkuntza



### Besteak



Dark Theme

